



JUNTA DEL VALLE DE AEZKOA
AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA

31671 ARIBE (Navarra) · CIF: P3175000C
Tel: 948 76 43 75
jvaezkoa@infolocal.org
valledeaezkoa@gmail.com
www.aezkoa.org

AEZKOAKO BATZARRE NAGUSIA
OIHAN ENKANTEA
2021KO PLANA
PEFC OIHAN AGIRIA



Espedientea: 3120204034 – **PINU GORRIA/IZEI GORRIA**

Aezkoako Batzarre Nagusiak jarraian adierazten den oihan lotea saltzeko enkantea iragarri nahi du. Lotea 2021. urteko aprobetxamendu planekoa da eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurune eta Toki Administrazioako Departamentuak onetsitakoa, urriaren 29ko 534/2021 Ebazpenaren bidez

Enkantea Nafarroako Toki Erregimena eguneratzen duen 11/2004 Foru Legeak, urriaren 29koak, 5. Xedapen Gehigarrian, hala nola 6/1990 Foru Legeak, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioakoak, xedatutakoari jarraikiz izapidetuko da. Seinaleztatutako oihan lotea, eta dagozkion balorazio ekonomikoa, 2021eko planekoa da, eta Nafarroako Gobernuak onetsitako baldintza teknikoen pleguari eta Batzarre Nagusiak onetsitako baldintza ekonomiko-administratiboen pleguari lotua dago. Honako hau da enkantean jarriko den oihan-lotea:

- 1/2021 Lotea – Alderdia: Usategieta. Pinu gorria eta izei gorria – Arraseko mozketak. Kokapena: 7a, 34h, 34m.

2.524 zuhaitz-oin dira, 4.686 m³ egiten dutenak. 2.362 oin pinu gorriak dira eta 162 izei gorriak.

Pinu gorriak 4.337 m³ ditu guztira. Horietatik 867 m³ lehen mailako zura da, eta, metro kubikoko, 45,00 € balio du; beste 2.169 m³, berriz, bigarren mailako zura da, metro kubikoko 30 € balio dute; azkenik, 1.301 m³ enbor txikiak dira, metro kubikoko 8,00 € balio dute. Kalitate goreneko zura hogeita hemeretzi mila eta hogeita hamabost euro (39.035,05 €) dira; bigarren mailako zura hirurogeita bost mila eta berrogeita hamazortzi euro eta berrogeita bat zentimo (65.058,41 €) dira; eta, enbor txikiek hamar mila lauhun eta bederatzi euro eta hogeita hamabost zentimo (10.409,35 €) egiten dute

Lotea, guztira: 114.502,81 € (ehun eta hamalau mila bostehun eta bi euro eta laurogeita bat zentimo).

Izei gorriak 349 m³ egiten ditu, guztira; horietatik 70 lehen mailako zura da, 45,00 €/ m³-ko balio duena; beste 175 m³, berriz, bigarren mailako zura da, m³-ko 30 €an dagoena; eta, beste 105 enbor txikiak dira, m³-ko 8,00 €an baloratuak. Lehen mailako zurak, guztira, hiru mila ehun eta berrogeita hiru euro eta hirurogei zentimo balio du (3.143,60 €); bigarren mailakoak bost mila berrehun eta hogeita hemeretzi euro eta hogeita hamalau zentimo (5.239,34 €) eta enbor txikiek zortziehun eta hogeita hamazortzi euro eta hogeita bederatzi zentimoa (838,29 €).

lzei gorria, guztira: 9.221,24 €(bederatzi mila berrehun eta hogeita bat euro eta hogeita lau zentimo)

LOTEA, GUZTIRA: 123.724,05 € (ehun eta hogeita hiru mila zazpiehun eta hogeita lau euro eta bost zentimo)

Eskaintzak 2021eko abenduaren 1eko 12:00ak arte aurkeztu ahal izanen dira, Aezkoako Batzarre Nagusiaren Erregistroan, baldintza administratiboen pleguan adierazitako dokumentazioarekin batera. Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekiko dira abenduaren 10ean, 12:00etan, Aezkoako Etxeko Bilkura Aretoan (Aribe). Enkantea arautzen duten baldinza teknikoak eta ekonomiko-administratiboak Batzarre Nagusiko idazkaritzan ikusgai daude, interesatuen eskura.

Eskaintzak 2021eko abenduaren 1eko 12:00ak arte aurkeztu ahal izanen dira, Aezkoako Batzarre Nagusiaren Erregistroan, baldintza administratiboen pleguan adierazitako dokumentazioarekin batera. Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekiko dira abenduaren 10ean, 12:00etan, Aezkoako Etxeko Bilkura Aretoan (Aribe). Enkantea arautzen duten baldinza teknikoak eta ekonomiko-administratiboak Batzarre Nagusiko idazkaritzan ikusgai daude, interesatuen eskura.

Aribe, 2021eko azaroaren 9a.

Karlos Bueno Reka